

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2974

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 5ekoa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez bi dirulaguntza emateko deialdia egiten baita, 2024-2025eko aldian, Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko.

Administrazio Publikoa, Zuzenbide Publikoa eta Administrazio Zientzia aztertu eta ikertzea ezinbesteko eta etengabeko eginkizun legez agertzen zaigu administrazio-jardunbideak definitzeko, plangintza egiteko eta ebaluatzeko.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bateginak, irailaren 21eko 3/2023 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutakoak, organismoari, besteak beste, xede hauek aitortzen dizkio: EAEko administrazio publikoek lege-, finantzaketa- eta estatistika-arloetan dituzten berezitasunak ikertzea, irakastea eta zabaltzea; eta Administrazio Zientzia ikertzea, irakastea eta zabaltzea, EAEko administrazioetan ezartzearekin batera.

Deialdi hau Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan gauzatzen den dirulaguntza-lerro bat da. Plana IVAPeko zuzendariaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartu da, eta erakundearen web orrian argitaratu da (https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/gardentasuna_infor_5/eu_def/adjuntos/2024-dirulaguntzen-plan-estrategikoa.pdf).

Oinarritzat hartuta bai aurreko deialdietako esperientzia, bai Gizarte Zientzien inguruko ikerketan gaur egun dagoen errealitatea, pentsa dezakegu taldekako ikerketa gero eta garrantzitsuagoa dela eta hortik oso emaitza aberasgarriak lor daitezkeela. Batez ere, kontuan hartzen badugu pertsona ezberdinen ekarpenez hornitzen dela, pertsona horiek orotariko ikuspuntuak daukatela eta, bide horretan, aukera sortzen dela proiektu berean ikertze-ikuspegi ezberdinak aintzat hartzeko.

Hortaz, deialdi honetan bi dirulaguntza aurreikusi dira Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko. Dirulaguntzok ikerketa-taldee zuzenduta daude, bai dagoeneko sendotutako taldeei, bai ad hoc eratutako taldeei.

Hori horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Bi dirulaguntza emateko deialdia egitea, 2024-2025eko aldian, Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko, ebazpen honen eranskinean dauden oinarri-arauen arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren zuzendariaren ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoan arabera. Horretarako, hilabete bat izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsu hori ebazpen hau eman zuen organoari

aurkez dakioke edo, bestela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua jarri zenetik hiru hilabete igarota ebazpen espresurik ematen ez bada, errekurtsua ezetsi egin dela ulertu beharko da, eta administrazioarekiko auzibidera jo ahal izango da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 5a.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.

ERANSKINA

OINARRI-ARAUAK

Lehenengoa.– Helburua.

Deialdi honen helburua Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko ikerketa sustatzea da eta, horretarako, 2024-2025eko aldi hau buruzko azterketak eta ikerketak egiteko bi dirulaguntza ematea:

- a) Euskal erakunde eta administrazio publikoen eskumen-, erakunde- edo arau-esparrua.
- b) Euskal erakunde eta administrazio publikoen antolakuntza, egitura edo funtzionamendua.
- c) Euskal erakunde eta administrazio publikoen erakundeekiko eta gobernuekiko harremanak.
- d) Kudeaketa publikoa edo zerbitzu publikoa gure lurralde-eremuan.
- e) Gure lurralde-eremuko edo beste lurralde-eremu batzuetako ereduak, proposamenak eta esperientziak ekartzea, baldin eta horiek eragina izan badezakete gure erakundeak eta administrazioak hobetzeko; bereziki, oinarri honetan adierazitako gaitan.

Bigarrena.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Ikerketa sustatzeko bi dirulaguntzatarako deialdia egiten da eta horietako bakoitzak hogeita mila (20.000) euroko ordainsaria izango du.

Beti ere, dirulaguntzen zenbatekoa kobratzeko eskubidea baldintzapean dago, hau da, bukatutako ikerlanek jasoko duten balorazioaren baldintzapean, hamabigarren oinarri-arauaren arabera.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuak kudeatuko du bi laguntza horiek emateko prozedura.

Hirugarrena.– Parte-hartzaileen betekizunak.

Dirulaguntzak ikerketa-taldeei zuzenduta daude.

Dirulaguntzak eskatu ahal izateko, eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Ikerketa-taldea gutxienez bi ikertzailek osaturik egongo da. Taldea honelakoa izan daiteke: finkoa, edo deialdi honetan parte hartzeko aurkeztuko duen proiektuari ekiteko ad hoc eratua. Eskabidean, taldearen kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoak adierazi beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere.

b) Ikerketa-taldearen partaide batek, gutxienez, administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan izatea 2023ko urtarrilaren 1az geroztik edo lehenagotik.

c) Ikerketa-taldearen partaide guztiek unibertsitate-titulu ofiziala izatea. Atzerrian eskuratutako tituluei dagokienez, homologazioa aurkeztu beharko da eta, homologaziorik izan ezean, unibertsitateak edo agintari-akademiko eskudun batek emandako ziurtagiria aurkeztu behar du, alegatutako titulua eman zen estatuan unibertsitate-titulu ofiziala dela egiaztatzeko.

d) Ikerketa-taldearen partaide guztiek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izango dituzte.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak automatikoki egiaztatuko ditu organo kudeatzaileak, dirulaguntza esleitu zein ordainketak egin aurretik. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin ahal dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

Laugarrena.– Baztertzeko arrazoiak.

Ezin izango dituzte eskatu deialdi honetako dirulaguntzak:

a) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren bat edo administrazio-zehapen edo zehapen penalen bat dutenek, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean aurreikusitakoa barne.

b) Administrazio Publikoari, Zuzenbide Publikoari edo Administrazio Zientziari buruzko azterlanak eta ikerketak egiteko Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak ikerketa sustatzearen deitutako dirulaguntza hauek azken hiru urtean hartu dituztenek. Epe hau dirulaguntza ematen duen ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da. Era berean, dirulaguntza hauek ezin izango dira bateratu proiektu bera egiteko beste ezein laguntza edo dirulaguntza publiko nahiz pribaturekin, doktore-tesiak egitera zuzendutako bekak eta dirulaguntzak barne izanik.

c) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako beste kasuren batean dauden pertsonak.

Oinarri-arau honetan jasotzen diren baztertzeko-arrazoiak taldeko eskatzaileetako bati badagozkio, akatsak zuzentzeko epean, ikerketa-proiektua eta ikerketa-taldea egokitzeko aukera emango zaie, deialdian ezarritako betekizunetara egokitzeko. Zuzendu ezean, baztertzeko arrazoi horiek ikerketa-taldeko kide guztiei eragiten dietela ulertuko da.

Bosgarrena.– Eskabideak: aurkezteko epea eta modua.

1.– Aurkezteko modua.

Dirulaguntza hauek eskuratzeko eskabideak, izapidetze elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoari buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuarekin bat etorritz.

Izapidetza egiteko helbide elektronikoen eskainitako eskabide-inprimakiak nahitaez erabili beharko dira, eta erantzukizunpeko adierazpen hauek jasoko dituzte: laugarren oinarri-arauan zehazten diren inguruabarrak –deialdian parte hartzea eragozten duten inguruabar gisa– aldi berean gertatzen ez direla adierazten dutenak, bai eta administrazioak eskakizunak egiaztatzeke emandako baimenak ere.

Helbide elektronikoen honetan izapidetuko dira eskabideak elektronikoki: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0030311>

2.– Aurkezpena egiteko baldintzak.

Eskabideak izapidetzeko, identifikazio eta sinadura elektronikorako Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioiko Egoitza Elektronikoen onartutako edozein bitarteko erabili ahal izango da. Bitartekoak helbide honetan kontsultatu ahal izango dira: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

3.– Deialdian ezarritako parte-hartzaileen betekizunen alegazioa eta egiaztapena:

3.a) Eskabideekin batera, ikerketa-taldeak nahitaezko agiri hauek aurkeztu beharko ditu beti:

3.a.1.– Ikerketa-proiektuaren memoria.

Nahitaez eredu normalizatuan aurkeztu beharko da. Eredu hori interesdunek eskuragarri izango dute eskabideak egiteko dagoen helbide elektronikoa. Agiri horrek ezin izango ditu 10 orrialde baino gehiago izan.

Memoria horretan, berariaz adierazi beharko dira hauek:

- Izenburua.
- Proiektuaren identifikazioa (laburpena).
- Ikerketa-taldearen partaideak: identifikazioa, pertsona bakoitzak egingo duen lana eta jasoko duen dirulaguntzaren ehunekoa.
- Proiektuaren justifikazioa: zergatik eta zertarako.
- Proiektuaren helburuak.
- Aztergaiaren egungo egoeraren deskribapena, aztertu nahi den gaiari buruzko ikuspegi laburra eta informazio garrantzitsuaren azalpena, eta proposatutako ikerketa-ildoak jakintza-arlo horretan dakartzan ekarpen nagusiak.
- Ikerketaren faseak: fase bakoitzaren helburuak eta zereginak.
- Metodologia: ikerketaren metodologia/k, ikerketarako aukeratutako aztergaia edo lagina, ikerketaren iturriak eta, hala badagokio, datu pertsonalak babesteko estrategia.
- Proposatutako proiektua garatzeko sinesgarritasuna bermatzen duten ikerketa-taldeko kideen ezaugarriak.
- Ikerketa-taldeak dituen baliabideak.
- Kronograma.

3.a.2.– Ikerketa-taldearen ordezkari bat izendatzea, ikerketa-taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko adina botere duena. Ordezkaritza egiaztatzeke, hala dela sinesgarritasunez erakusten duen edozein bide erabili ahal izango da, zuzenbidean baliozkoa bada. Ondorio horietarako, ordezkaritza egiaztaturik geldituko da *apud acta* ahalordetzearen bitartez egin bada, agerraldi pertsonala eginez edo Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioiko Egoitza Elektronikoa agerraldi elektronikoa eginez, edo egoitza elektronikoa horren ordezkarien erregistro elektronikoa (<https://euskadi.eus/ordezkarriak>) inskribatu izana egiaztatuz.

3.a.3.– Unibertsitate-titulua, ikerketa-taldea osatzen duten pertsona guztiena, titulu hori estatu honetatik at eskuratu baldin bada. Ikerketa-taldeak aurkeztu beharko du homologazioa egiaztatzen duen agiria, edo dagokion unibertsitatearen edo aginte akademikoaren ziurtagiria, alegatutako titulua eman zen estatuan unibertsitate-titulu ofiziala dela jasotzen duena.

3.b) IVAPek elektronikoki kontsultatuko edo eskuratuko dituen nahitaezko agiriak, bi salbuespenekin: alde batetik, ezinezkoa izatea IVAPek datua lortzea edo egiaztatzea –kasu horretan, ezintasuna egiaztatu ondoren, interesdunei eskatuko zaie aurkezteko–; bestetik,

interesdunek berriaz aurka egiten badute, bosgarren oinarri honen 6. apartatuan adierazitako terminoen eta baldintzen arabera –kasu horretan, oinarri horretan adierazitako ondorioak aplikatuko dira–:

3.b.1.– Unibertsitate-titulua, ikerketa-taldea osatzen duten pertsona guztiena, baldin eta estatu honetan eskuratu bada.

3.b.2.– Ikerketa-taldearen partaide batek, gutxienez, 2023ko urtarrilaren 1az geroztik edo lehenagotik, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-auzotasuna duela adierazten duen erroldatze-ziurtagiria edo ziurtagiriak.

Horretarako, eskabidean adierazi beharko da zein den baldintza hori beteko duen taldeko pertsona.

4.– Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Eskabideak zuzentzea.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 20.4 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera, eskabideak edo ikerketa-taldeak aurkeztu behar dituen nahitaezko agiriek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, edo horien edukia nahikoa ez bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio hamar egun baliodun dituela nahitaezko dokumentazioa osatzeko edo akatsa zuzentzeko; eta, horrela egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta horretarako administrazioak dagokion erabakia hartu eta jakinaraziko duela.

IVAPek eskuratu edo kontsultatu beharko dituen agiriak, IVAPek ezin baditu eskuratu edo kontsultatu, salbuesenez, interesdunari agiri horiek aurkeztea eskatu ahal izango zaio.

6.– IVAPek agiriak eskuratzeko edo kontsultatzeko, interesduna aurka agertzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan arabera, eta indarrean dauden datu babesaren inguruko arauen arabera, IVAPek agiriak elektronikoki eskuratu edo kontsultatu behar dituen kasuetan interesdunak aurka egiteko espresuki adierazi beharko du. Kasu horretan, eskabide-formularioan berriaz jarritako laukia markatu beharko du interesdunak, IVAPek kasu bakoitzean dagokion dokumentua elektronikoki kontsultatzearen edo jasotzearen aurka dagoela adierazteko.

Interesdunak adierazten badu ezen deialdian parte hartzeko eskakizunen alegazioari eta egiaztapenari buruzko dokumenturen bat edo batzuk IVAPek elektronikoki kontsultatzearen edo eskuratzearen aurka dagoela, pertsona horrek dokumentu horiek aurkeztu beharko ditu. Bestela, pertsona hori ezin izango da onartu deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzak esleitzeko prozesuan.

7.– Gainerako izapideak.

Norberaren espedientean sartzeko eta haren jarraipena eta izapideak egiteko egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» apartatu berezira jo behar da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Seigarrena.– Dirulaguntzak esleitzeko prozedura eta eskabideen balorazioa.

Deialdi honetako laguntzak norgehiagoka-erregimenean esleituko dira, lehiaketa bidez, ebazpen honetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritako oinarrien arabera.

Aurkeztutako eskabideak xede horretarako eratuko den balorazio-batzorde batek baloratuko ditu. Horretarako, aurkeztutako ikerketa-proiektua ebaluatuko da, gehienez ere 100 punturekin, baremo honen arabera:

a) Ikerketa-proposamenaren interesa: gehienez ere, 15 puntu.

Irizpide honetan baloratuko dira: proposatzen den ikerketaren beharra; horren izaera berritzailea eta ikerketak aztergaiari egiten dion ekarpena; eta lortutako emaitzen erabilgarritasuna edo/eta eragina, erakunde eta administrazio publikoetarako eta gizarterako. Era berean, baloratuko da proiektua euskaraz egin izana eta, ondorioz, amaierako lana euskaraz egin eta aurkeztea.

b) Ikerketa-proposamenaren kalitatea: gehienez ere, 35 puntu.

Hauek baloratuko dira: proposatutako helburuek eta azalpenek dauzkaten interesa eta garrantzia; ikerketaren galderek eta, hala badagokio, proposatutako hipotesiek daukaten interesa.

c) Ikerketa-proposamenaren bideragarritasuna eta metodologia: gehienez ere, 40 puntu.

Hauek baloratuko dira: proiektua, lan-plangintza eta aldiak proiektuaren helburuei eta ikerketa-galderei (eta, hala badagokio, hasierako hipotesiei) egokitzea; proposatutako planteamendu metodologikoak proiektuaren helburuei eta ikerketaren galderei egokitzea (eta, hala badagokio, hasierako hipotesiei); plangintzak eta kronograma ikerketaren aldiei eta horien azalpenari egokitzea.

d) Ikerketa-proposamenaren argitasuna, zuzentasuna, ordena eta egitura: gehienez ere, 5 puntu.

e) Proiektuan genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzea: gehienez ere, 5 puntu.

Hauek baloratuko dira: proiektuaren garapena azaltzeko ideien argitasuna; proiektuaren azalpenak zuzen eta argi idatzita egotea; ordena eta egitura egokia.

Ikerketa-proiektuaren balorazioan gutxienez 70 puntu lortu ez duten eskabideei ezin izango zaie inolako dirulaguntzarik esleitu.

Zazpigarrena.– Balorazio-batzordea.

1.– Eginkizunak.

Deialdi honen esparruan, balorazio-batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

– Aurkeztutako eskabideak ebaluatzea eta egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egitea (txosten horren arabera, organo kudeatzaileak egingo du dagokion ebazpen-proposamena).

– Esleipendunek egindako ikerketa-lanak kalifikatzea, eta egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egitea (txosten horren arabera, organo kudeatzaileak egingo du ebazpen-proposamena, hamabigarren oinarrian aurreikusitako ondorioekin, laguntza ordaintzeari eta aurkeztutako monografia argitaratzeari dagokienez).

2.– Osaera.

Hauek izango dira balorazio-batzordeko kideak:

Batzordeburua:

- Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko idazkari nagusia edo hark izendatutako ordezkoa.

Batzordekideak:

- Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Azterlan eta Argitalpenen arduraduna edo hark izendatutako ordezkoa.
- Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuko teknikari bat edo hark izendatutako ordezkoa.
- Deialdian adierazten diren gaietako aditu bi, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren zuzendariaren ebazpen baten bidez izendatuak.

Idazkaria:

- Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuko teknikari bat edo hark izendatutako ordezkoa. Idazkariak hitza eta botoa ditu.

Balorazio-batzordea osatzeko, ahaleginak egingo dira trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen ordezkariak orekatua egon dadin. Ondorio horretarako, ordezkariak orekatua izango da baldin eta sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak baldin badu.

Ezinezkoa edo oso zaila gertatzen bada, sexua edozein dela ere, lehen adierazitako ehunekoak betetzea, ezintasun edo zailtasun hori arrazoituko da balorazio-batzordea osatzen duten aditu biak izendatzen dituen ebazpenean.

Halaber, balorazio-batzordeak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak edukiko ditu kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, izaera horrekin bakarrik elkarlanean arituko baitira balorazio-batzordearekin.

3.– Funtzionamendua.

Balorazio-batzordeak botoen gehiengo soiluz hartuko ditu erabakiak. Kide anitzeko organoa den heinean, oinarri-arau hauetan berariaz jasotzen ez den guztirako, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 15. artikulutik 24. artikulura bitartean adierazitakoa izango da araubidea.

Batzordeburua edo idazkaria, edo izendatutako ordezkoa, balorazio-batzordearen bileraren batera agertu ezean, eta quorum nahikoa betetzen bada, bilerara azaldutako kideen gehiengoaz erabakiko da haien artean nork beteko dituen batzordeburuaren edo idazkariaren eginkizunak.

Zortzigarrena.– Dirulaguntzak onartzea eta esleitzea.

1.– Onarpena.

Organo kudeatzaileak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, dagokion ebazpen-proposamena egingo du, eta esleipendun diren ikerketa-taldeei jakinaraziko die.

Dirulaguntza bakoitzaren onarpena egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» apartatuan (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) telematikoki aurkeztutako idatzi baten bidez jakinarazi beharko da, bost egun balioduneko epean. Epe hori ebazpen-proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Lehenago aipatutako dirulaguntzaren onarpen-idatzian zehaztu beharko da taldekide bakoitzak zein ehunekotan parte hartzen duen ikerketa-proiektuan, behar diren ordainketak egite aldera.

Balorazio-batzordeak esleipendunei egoki iritzitako oharrak egin ahal izango dizkie egin beharreko ikerlanari buruz, ikerketa-proiektuaren memoria garatzeko.

Esleipendun diren ikerketa-taldeek dirulaguntza bakoitza onartzeak deialdi honetako oinarri-arauetan ezartzen diren baldintzak onartu beharra dakar; bai eta, ikerlanaren jarraipenari begira, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren Zuzendaritzak ematen dituen ebazpenak onartu beharra ere. Adierazitako epean onartzen ez bada, onuradun gisa proposatutako pertsonak eskaerari uko egiten diotela ulertuko da.

2.– Esleipena.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren zuzendariak, ebazpen baten bidez, dirulaguntzak esleituko ditu, edo dirulaguntza horien esleipena erabat edo partzialki hutsik geratu dela adierazi. Ebazpena arrazoitua izango da, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.3 artikulua ezartzen dituen baldintzak beteko ditu.

Ebazpenak hau jasoko du:

– Dirulaguntzen esleipendun gisa aukeratutako ikerketa-proiektuak, eta, hala badagokio, hutsik gelditu diren dirulaguntzak.

– Hala badagokio, ordezkioak izango diren ikerketa-proiektuen zerrenda.

Dirulaguntzak esleitzen dituen ebazpena, edo deialdia hutsik uzten duena, egun berean argitaratuko da bai deialdiaren Interneteko helbide elektronikoa, bai eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, argitalpena egin den eta hurrengo egunetik aurrera sei hilabeteko epea igaro baino lehenago.

Bederatzigarrena.– Dirulaguntzen onuradunen betebeharrak.

Deitutako dirulaguntzak jasotzen dituztenen ikerketa-taldeen partaide guztiak dirulaguntzen onuradunak izango dira eta, horren ondorioz, betebeharrak hauek dituzte:

a) Deialdi honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituen ikerlana garatu, eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuan aurkeztu beharko dute; ikerlanak monografia bat izan behar du, eta dirulaguntzaren esleipena jaso zuen ikerketa-proiektuaren memoria proposatutako gaia garatu beharko du, memoria bertan azaldutakoaren arabera. Halaber, ikerketa-taldeko kide bakoitzak egingo duen lana ikerketa-proiektuaren memoria adierazitako moduan gauzatu beharko du.

b) Ikerlanaren justifikaziorako amaierako txosten bat egitea eta aurkeztea. Alde batetik, txostenak labur azaldu beharko du ikerketa-proiektuaren memoria ezarritako helburu orokorraren betetze-maila, bai eta, hala badagokio, helburu espezifikoena ere. Bestalde, erabilitako metodologia labur azaldu beharko du. Era berean, txosten horretan, ikerketa-taldeak komenigarritzat jotzen dituen zehaztasunak azal ditzake, bai emandako monografiari buruz, bai horrek ikerketa-proiektuaren memoriarekiko daukan egokitasunari buruz.

c) Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekin bildu beharko dira, hala eskatzen bazaie.

Era berean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, hauek izango dira dirulaguntza hauen onuradunen betebeharrak:

a) Dirulaguntza ematea bidezko egiten duen jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Entitate emaileari justifikatzea dirulaguntza ematea edo dirulaguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak eta betekizunak betetzen direla eta jarduera aurrera eraman dela. Jarduera pertsonai buruzkoa bada, sexuaren arabera berezitateko datuak eman beharko dira. Era berean, proiektuan deskribatutako ikerketa-taldeko kideen ezaugarriei buruzko alderdiak justifikatu beharko ditu, IVAPek hala eskatzen badu.

c) Organo edo entitate emaileak egingo dituen egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren dirulaguntzen kasuan. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziak xedatutako jarduketak ere onartu beharko dituzte, bai eta finantzaketa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketenak ere.

d) Beste edozein administrazio edo ente publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea entitate emaileari. Hura jakin bezain laster eman beharko diote haren berri, eta, nolana ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

e) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu baldin bada, horren berri ematea entitate emaileari. Hura jakin bezain laster eman beharko diote haren berri, eta, nolana ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, baita dirulaguntzak organo emaileari berreskuratzeari buruzkoak ere, betetzen dituztela egiaztatzea dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik eta hura ordaintzeko unean. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan ogasun-gaietako eskumena duen saileko titularrak agindu bidez arautuko du hori egiteko modua.

g) Izaera juridikoak hala eskatzen badu, kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritza- eta sektore-legeek ezarritakoaren arabera, bai eta dirulaguntzen oinarri erregulatuak eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orriak edo berariazko erregistro guztiak ere, behar bezala egiaztatzen eta kontrolatzen direla bermatzeko.

h) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

i) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan jasotako zabalkunde-neurriak betetzea.

j) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak edo diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina itzultzea.

k) Ikuspegi interseksionala eta, bereziki, sexuari eta generoari dagokion alderdia errespetatzen dituen hizkera eta irudiak erabiltzea dirulaguntza jasotzen duen jarduera edo proiektuak behar dituen agiri eta material guztietan.

l) Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean herritarren hizkuntza-eskubideak eta bereziki euskararen erabilera bermatzea.

Hamargarrena.– Dirulaguntza esleitu ondoren eskabidea edo aurkeztutako proiektua aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako edozein aldaketa izanez gero eta, nolana ere, helburu berarentzat beste administrazio edo ente publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzak edo dirulaguntzak aldi berean jasoz gero, idatziz jakinarazi behar zaio Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari; eta, horren ondorioz, gerta daiteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea honela:

1.– Emandako dirulaguntza galtzea dakarten dirulaguntzarako baldintzen aldaketak hauek izango dira:

1.a) Deialdi honetako oinarri-arauak osotasunean edo zati batean ez betetzea.

1.b) Datuak ezkutatzea, aldatzea, edo eskabidean edozein manipulazio egitea.

1.c) Ikerketa-proiektu berean beste erakunde publiko edo pribatuetatik datorren finantzaketa metatzea.

1.d) Ikerketa-proiektua edo ikerketa-taldearen osaera aldatzea, deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintzak galtzea badakarte.

2.– Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak aztertuko ditu ikerketa-proiektuaren aldaketa esanguratsuak eta ikerketa-taldearen osaerak izandako aldaketak, aldaketa horiek ezarritako baldintzak ez mantentzea badakarte; eta, horren ondorioz, erabakiko du emandako dirulaguntza –guztiz edo zatika– itzuli behar den.

Hamaikagarrena.– Deialdiaren esparruan egindako ikerlanak aurkeztea.

Ikerlana aurkezteko orrialde zenbakiak jarriko dira, eta aurkibide bat izango du, edukien hasierako orrialde-zenbakia aipatzen duena. Ikerlana deialdi honen bederatzigarren b) oinarrian eskatzen den ikerlanaren justifikaziorako amaierako txostenarekin batera aurkeztuko da. Hori dena egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» apartatuan (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) aurkeztuko da.

Burututako ikerlanak eta horien inguruko justifikaziorako amaierako txostenak aurkezteko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

Hamabigarrena.– Dirulaguntzak ordaintzea. Zenbatekoa zehazteko sistema.

1.– Ordainketak.

Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:

1.a) Lehenengo ordainketa, bost mila (5.000) eurokoa, dirulaguntza onartzearekin batera. Zenbateko horrek ikerketa-jarduera garatu ahal izatea du xede, eta konturako ekarpenaren izaera du. Beraz, lehenengo ordainketa horretan jasotakoa baldintza suntsiarazlearen mende dago; izan ere, azkenean aurkezten den lanak ez badu lortzen, hurrengo paragrafoan adierazitakoaren arabera, argitaratuta izateko edo liburutegian gordeta gelditzeko kalifikazio

nahikorik, lehenengo ordainketako diru-kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari itzuli beharko dio ikerketa-taldeak.

1.b) Bigarren ordainketa, hamabost mila (15.000) eurokoa.

2.– Ikerlanen kalifikazioa eta dirulaguntzen bigarren ordainketa.

Bigarren ordainketaren zenbateko zehatza aurkeztu diren ikerketa-monografiak lortutako kalifikazioaren arabera izango da. Balorazio-batzordeak, monografiaren analisiaren ondoren, irizpide hauen arabera kalifikatuko du, 10 puntu gehienez emanda:

2.a) Dirulaguntza lortzeko aurkeztutako proiektua betetzea: gehienez ere, 2 puntu. Irizpide honetan gutxienez 1,5 puntu lortu beharko dira, 2.b) irizpidean puntuazioa lortu ahal izateko.

Beraz, balorazio-batzordeak 2.a) irizpide honetan 1,5 puntu baino gutxiago ematen baditu, monografiari dagokion kalifikazioa ezgai izango da, eta, ondorioz, oinarri honetako 3.c) apartatua ezartzen den bezala, ez du bigarren ordainketarik jasoko eta lehenengo ordainketan jasotakoa –konturako ekarpenaren izaerakoa– itzultzeko prozedura hasiko da.

Irizpide honen barruan baloratuko da monografiaren egokitzapena, aurkeztutako proiektuari dagokionez; bereziki, proposatutako helburuen garapenari dagokionez, helburu bakoitzaren garrantzia haztatuta, hala badagokio.

2.b) Ikerlanaren kalitatea: gehienez ere, 8 puntu. Irizpide honen barruan baloratuko dira:

2.b.1.– Ikerketaren kalitate zientifikoa: gehienez ere, 2,5 puntu.

2.b.2.– Planteamendu metodologikoen egokitzapena eta zuzentasuna: gehienez ere, 2 puntu.

2.b.3.– Ideien argitasuna, zuzentasuna eta monografiaren azalpenen zehaztasuna: gehienez ere, 0,5 puntu.

2.b.4.– Monografiak ikertutako alorrean proposatu dituen berrikuntzak: gehienez ere, 1,5 puntu.

2.b.5.– Lortutako emaitzen erabilgarritasuna nahiz eragina, erakunde- eta administrazio-teorian nahiz praktikan: gehienez ere, 1,5 puntu.

Balorazio-batzordeak dagokion txostena egingo du, egindako ikerketa-lanen ebaluazioaren emaitza zehaztuz. Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen baten bidez, lanen kalifikazioa erabakiko da eta ondorioak ezarriko dira, oinarri honetako 3. apartatua xedatutakoaren arabera.

3.– Esleitutako dirulaguntza bakoitzak jasotako kalifikazioa eta bigarren ordainketaren zenbatekoa loturik daude, honen arabera:

3.a) 8,5 edo hortik gorako puntuazioa jaso duten monografiak:

Hamabost mila (15.000) euro.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak lan horiek argitaratuko ditu, deialdi honetako hamaseigarren oinarri-arauan ezarritakoarekin bat etorruta.

3.b) 5 eta 8,4 bitarteko puntuazioa (biak barne) jaso duten monografiak:

Aurkeztutako ikerlanari kalifikazio hau emateak ekarriko du lehenengo ordainketa –konturako ekarpenaren izaerakoa– mantentzeko eskubidea aitortzea onuradunei, eta ez zaio egokituko bigarren ordainketaren diru-kopururik.

Halaber, lan hauek Eusko Jaurlaritzako liburutegian gordeko dira, deialdi honetako hamabosgarren oinarri-arauan ezarritakoarekin bat etorrira. Egindako ikerlana liburutegiko katalogoan sartuko da, irakurleentzat eta etorkizuneko ikertzaileentzat ekarpen baliagarriak dauzkan lan legez.

3.c) Ezgai kalifikazioa (5etik beherako puntuazioa) jaso duten monografiak:

Ez dute bigarren ordainketarik jasoko eta lehenengo ordainketan jasotakoa –konturako ekarpenaren izaerakoa– itzultzeko prozedura hasiko da.

Emandako dirulaguntza itzultzea, hala badagokio, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40.artikuluaren ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

Hamahirugarrena.– Dirulaguntzei uko egitea.

Dirulaguntzari ikerketa-talde osoak uko egiteko, egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» apartatua (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) telematikoki aurkeztutako idatzi bidez jakinarazi beharko da, eta esleipenari dagozkion eskubide ekonomiko guztiak galtzea ekarriko du. Ukoa bestelako izapiderik gabe onartuko da. Kasu horietan, Administrazio Publikoaren Euskal Instituturen zuzendariak erabakiko du, uko egitearen data kontuan hartuta, puntuazioaren hurrenkerearen arabera hurrengo talde ordezkari dirulaguntza emango zaion.

Ikerketa-talde bateko kide baten edo batzuen aldetik ikerketa-proiektuari zati baten uko egiteko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari egoitza elektronikoko «Nire karpeta» apartatua (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) telematikoki aurkeztutako idatzi bidez jakinarazi beharko zaio, eta eskubidearen aldaketatzat joko da. Hortaz, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak ebaluatu beharko du, deialdiaren hamargarren oinarri-arauan jasotakoaren arabera, emandako dirulaguntza guztiz edo zati baten baliogabetu behar den, bai eta jasotako zenbatekoak ere itzuli behar diren.

Hamalagarrena.– Ikerlanak jabetza intelektualaren erregistroan inskribatzea.

Ikerketa-taldearen ordezkari gisa izendatutako pertsonak ikerlana jabetza intelektualaren erregistroan inskribatu beharko du, ikerlana Administrazio Publikoaren Euskal Institutuan jaso eta hurrengo egunetik aurrera urtebeteko epean, gehienez ere. Esandako epean inskripzioa egitea ezinezkoa bada, eta betiere epe hori igaro aurretik, jasotzaileak, arrazoiturik, agerian jarriko du ezintasuna. Lehen aipatutako urtebeteko epean inskribatzeko ezintasuna guztiz egiaztatzen den kasuetan, inskripzioa egiteko beste epe bat eman ahal izango da.

Hamabosgarrena.– Eusko Jaurlaritzako liburutegian gordetako ikerlanak.

12.3. oinarri-arauaren arabera, Eusko Jaurlaritzako liburutegian gordeko diren egindako ikerlanak, jabetza intelektualerako eskubideari buruzko arauari loturik baino ezin izango dira erabili.

Ikerlan horietako baten bat beste argitaratzaile edo argitaletxe batek argitaratzen badu, egileak argitalpen horren berri eman beharko Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari eta bi ale bidaliko dizkio. Argitalpenaren berri eta bi aleak jaso eta gero, aldeztu aurretik liburutegian gordetako ikerlana kenduko da.

Hamaseigarrena.– Deialdi honen barruan egindako ikerlanak argitaratzeko eskubideak.

Dirulaguntza onartzeak berekin dakar Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari egile-eskubideak dohainik lagatzea, hamar urteko eperako eta edozein hizkuntzatarako, balorazio-batzordeak ikerlanari argitaratzeko kalifikazio nahikoa emanez gero. Administrazio

Publikoaren Euskal Institutuak urtebeteko epean ikerlana argitaratzeko konpromisoa hartzen du; epe hori zenbatzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo erakunde horren argitalpen-zerbitzuen esleipendun enpresek bete behar dituzten izapideak hartuko dira kontuan, eta ez egileen ardurakoak diren betebeharrak betetzeko denborak.

Egindako ikerlana beste lan zabalago baten atala bada, IVAPek eta lanaren egileek testua oso-osorik argitaratzea adostu dezakete; hori dela eta, egileek IVAPi lan osoa ustiatzeko eskubideak lagako dizkiote.

Edozein modutan ere, deialdi honetatik sortutako ikerlanen edizio guztietan, bai lan osoa izanda bai zati batekoa, egileek Administrazio Publikoaren Euskal Institututiko dirulaguntza eskuratu dutela adierazi behar dute.

Hamazazpigarrena.– Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekiko lan-kontratupeko obligaziorik eza.

Aipaturiko dirulaguntzak ez dakar inolako kontratu-loturarik Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren eta jasotzaileen artean.

Hemezortzigarrena.– Administrazio-isiltasuna.

Deialdiak eragina izan duen egunetik sei hilabete igarota, deialdiaren Interneteko helbide elektronikoan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ez badago esleipena egiteko erabakirik argitaratuta, interesdunek ezetsizat hartu beharko dute beren eskaera. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikulua arabera.

Hemeretzigarrena.– Datuen babesari buruzko informazio oinarrizkoa.

Datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: «Ikerketen sustapena».

– Arduraduna: IVAP.

– Helburua: Deialdi hau kudeatzea eta ebaztea.

– Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak: Ogasun publikoa eta zerga administrazioa. Esleipendunen datuak argitalpenetan agertu dira. IVAPeko zabalkunde-jardueretan agertu ahal izan dira. Aldizkari Ofiziala.

– Eskubideak: Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea du, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

– Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/060200-capa2-eu.shtml>

– Araudia: Datu Babeserako Erregelamendu Orokorra eta, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.